

Azeria eta kurriloa

Ibai ertze batean bizi zen kurrilo bat arrantzan ematen zituen goiz guztiak. Haren moko fina bezain zorrotza zulo txikienetan ere sartuko zuen arrain txikiak harrapatu eta arrain handiak zuloetatik atera, hegaldi txiki baten ondoren, mokoratzeko.

Lasai bizi zen gure kurriloa erreka batean egin zuen habia erosoan; bertan ematen zituen ordu asko lumak lehortzen eta atsedena hartzen. Baina egun batean, lozorroan zegoela azeria agertu zitzaion.

–Arratsaldeon, ahizpa kurriloa, erdi lotan ikusten zaitut. Ondo bazkaldu duzun seinale.

–Bai, alajaina! Ibai honetan arrainez beteriko putzu asko daude eta nik denak ere denak ezagutzen ditut. Goiz partea arrantzan eman dut eta oraintxe erdi lotan nengoen bada, atsedena hartuz, gero hegan egitera atera baino lehenago.

Azeriak atzeratutako gosea sentitzen hasi zen bere tripa zorroan, baina ez zuen kurriloa ikaratu nahi eta tentu handiz esan zion:

–Nahi baduzu, bihar goizean zurekin arrantza egitera etorriko naiz; arrain saldoa harrapatuko dugu, biak ere biak ase eta zoriontsu izateko.

–Oso ondo, amandre azeria, zatoz egunsentian eta ea zer moduz moldatzen garen.

Hala bada, hurrengo goizarekin barneratu ziren bi lagunak ibaian, eta esku betetako arrain mordoa harrapatu zuten. Egunero hasi ziren biak arrantzan, gainera, oso lagun onak egin ziren. Egun batean, arrantza egin ondoren azeriak esan zion bere ahizpa kurriloari:

–Bihar bazkari gozoa prestatuko dut, zatoz niregana bazkaltzera.

–Oso ondo hantxe izango naiz puntu-puntuan.

Hurrengo egunean, kurriloak lore txorta bat bildu eta azeriarenera abiatu zen, pozik halako adiskide ona egin zuelako. Zer jarriko ote zion bazkaltzeko azeriak? Bere amandre hura ez zen oso parte onekoa, zenbaitetan pikardiak egiten zizkien auzokoei, baina bidean ttipi-ttapa, azeriaren ate ondora iritsi zen.

–Tok, tok! Ailegatu naiz amandre azeri. Sartuko al naiz?

–Aurrera, ahizpa txikia. Begira zein bazkari gozoa prestatu dudan zuretzako.

Azeriak plater handi bat atera zuen, zopaz bete!!!!

Kurriloa inguratu zen platerrean, baina zopa hura nola jan ez zekiela zegoen. Moko luze eta fina behin eta berriz sartzen zuen salda bero hartan baina apenas ahoratzen zituen tanta bakar batzuk. Bitartean azeriak bere mihi luzea zopan sartu eta instant batean zurrupatu zuen zopa guztia.

Kurriloa harrituta bukatu zuen otordu hura, baina amandre azeriari bere haserrea ez zion erakutsi., aitzitik, lasai-lasai adierazi zion:

–Bihar nire txanda izango da eta zatoz nire habira. Otordu goxo bat prestatuko dut gozatzeko. Zer iruditzen zaizu?

Azeriak baietz esan eta han aurkeztu zen hurrengo egunean kurriloaren habia handian, ez lore eta ez lotsarik. Kurriloak ederki pentsatutako bazkaria prestatu zion. Botila estu baten hondoan sartu zituen gari aleak, xomorro batzuk, igel txikiak eta bestelako xomorro eta ale txikiak...

Kurriloak bere moko estua sartzen zuen botilaren lepotik behera, eta banan bana hartzen zituen haren ipurdian zeudenak. Azeria hasi zen botilaren inguruan bueltaka; mingainaz milizkatzen zuen haren ahoa, baina alferrikakoak ziren ahalegin guztiak. Ezin baitzuen muturra bertan sartu eta ekarritako baino gose handiago zuela, aldentu zen kurriloaren ondotik eta haren habiatik.

Aurrerantzean azeria eta kurriloa ez ziren lagunak izan; ez ziren geroztik izan ahizpak edota amandreak. Elkar ikusten zutenean, kasurik egin gabe aurrera egiten zuten ez ikusia egiten zutelarik...

Itziar Zubizarreta